HIRI BIZIGARRIAGOAK ERAIKITZEN

- **Jakintza adarra:** Ingeniaritza eta Arkitektura
- **Campusa:** Gipuzkoa
- **Ikastegi antolatzailea:** Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Donostia)
- **Graduak:** Gradu Bikoitza: Ingeniaritza Zibila + Arkitektura Teknikoa
- **Garapen-lekua (helbidea):** Europa plaza, 1. Donostia (Gipuzkoa)

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Jardueraren helburua da ikasleak Ingeniaritza Zibilaren eta Arkitektura Teknikoaren eremura hurbiltzea, informazio akademikoa eta esperientzia praktikoak uztartuz.

Ingeniaritza Zibileko eta Arkitektura Teknikoko Gradu Bikoitzaren ikasketak, espezializazio arloak eta titulazioaren irteera profesionalak aurkeztuko dira.

Gainera, ikasleek bi tailer praktikotan parte hartuko dute, egiturazko diseinuarekin eta hiri-azpiegituren plangintzarekin zerikusia dutenak, eta aukera emango zaie bertatik bertara ezagutzeko ingeniari zibilek eta arkitekto teknikoek beren lanbide-jardueran erabiltzen dituzten zenbait gaitasun eta tresna.

2. LANDUKO DIREN GAIAK/EDUKIAK

I) Ingeniaritza Zibileko eta Arkitektura Teknikoko Gradu Bikoitzaren titulazioa:

- Ikasketa-plana eta irakasgaiak.
- Ingeniaritza zibilaren eta arkitektura teknikoaren eskumenak eta jarduera-esparruak.
- Lanbidea eta lan-irteerak

II) Eskolaren eta lanbide-ingurunearen arteko harremana:

- Enpresekin eta GKEekin elkarlanean egindako proiektuak.
- Profesionalek emandako hitzaldiak.
- Bisita teknikoak obra eta azpiegituretara.
- Praktikak eta Gradu Amaierako Lana enpresan.

III) Berrikuntza eta teknologia ingeniaritzan:

- Egituren diseinua eta zubien portaera erresistentea.
- Hiri-azpiegituren diseinu kontzeptuala.
- Azpiegiturak diseinatzeko eta bistaratzeko adimen artifizialeko tresnak erabiltzea.

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

I) Informazio-saioa

Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolaren ezaugarriak eta Ingeniaritza Zibileko eta Arkitektura Teknikoko Gradu Bikoitzaren ikasketa plana aurkeztuko dira.

- Ingeniaritza zibilak eta arkitektura teknikoak garapen jasangarriari, klima aldaketari egokitzeari eta ekonomia zirkularrari egiten dioten ekarpena azpimarratuko da.
- Ikasketa-plana azalduko da, baita graduondoko eta espezializazioko ikasketen bidez jarraitzeko aukerak ere.
- Titulazioaren irteera profesional nagusiak erakutsiko dira.

II) Tailer praktikoak

1. Tailerra: Zubien diseinua eta egiturazko portaera

Hainbat zubi enblematikoren ezaugarrien eta egituraren funtzionamenduaren berri emango da, eta aztertuko da geometriak, materialek eta elementu erresistenteen kokapenak nola eragiten duten haien portaeran. Ondoren, parte-hartzaileek, taldeka antolatuta, beren zubi propioa diseinatu eta eraikiko dute, eraikuntza modularreko sistema baten bidez. Ereduak amaitutakoan, hartutako irtenbideak alderatuko dira, eta egonkortasuna, egitura-eraginkortasuna, sormena eta proposatutako argia salbatzeko gaitasuna ebaluatuko dira.

2. Tailerra: IA erronka: irudikatu, marraztu eta eraldatu

Parte-hartzaileek diseinu-erronka bati egin beharko diote aurre, hau da, irakasleek planteatutako baldintza funtzional batzuk betetzen dituen hiri-azpiegitura bat irudikatu beharko dute. Proposamena, hasiera batean, eskuz egindako krokis baten bidez irudikatuko da. Ondoren, adimen artifizialeko tresnak erabiliz, haien ideiak irudi hiperrealista bihurtuko dituzte, azken emaitza ikusarazteko. Sormena, funtzionaltasuna, hiri-integrazioa eta garatutako proposamenaren kalitatea balioetsiko dira, besteak beste.

Baloraziorik onena jasotzen duten proposamenak egiten dituzten parte-hartzaileek sari bat jasoko dute.

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordua	Plazak
2027-01-26	Euskara	Goizez	11:00-13:00	20
2027-01-26	Gaztelania	Goizez	11:00-13:00	20